



Ez dugu Erregerik. Demokrazia, askatasuna, Errepublikak.

Adierazpen hau sinatu duten indar politiko independentista, subiranista eta errepublikarrek honakoa adierazi nahi dute.

Monarkia instituzio anakronikoa, hereditarioa eta biziartekoa da, funtsezko printzipio demokratikoekin bateraezina. Espainiako Estatuaren kasuan, gainera, demokraziaren aurkako izaera hori areagotu egiten du Franco diktadoreak ezarri izanak eta, neurri horretan, frankismoaren oinordetza izateak.

Espainiako Monarkia ez dator bat askatasuna, berdintasuna eta demokrazia bezalako balio errepublikanoekin, eta uko egiten dio gure herrietako gehiengo sozialaren eskariei. Erregeak ordezkatzeko oinarri, oinordetza eta balioekin apurtuz soilik izango da posible benetako demokrazia. Horregatik, uste dugu Espainiako Erregeak eta Monarkiak, demokratikoki aukeratuak ez diren heinean, gure parlamentuen, herritarren eta gobernuen aurkako tutoretza alde batera utzi behar dutela. Horrela bakarrik lortuko direlako herri borondatearen errespetuan, askatasunean eta demokrazian oinarritutako konponbideak.

Espainiako Monarkiak eta bere ordezkari nagusiak, Espainiako Erregeak, ez gaituzte ordezkatzeko. Kataluniako, Euskal Herriko eta Galiziako gizartearen gehiengoak gaitzetsi egiten du erabat anakronikoa eta Frankismoaren oinordekoa den instituzioa. Monarkiak Espainiako batasuna eta legedia inposatzea ditu oinarri, gure herrien eta herritarren eskubide zibil, politiko eta nazionalak ukatuz.

Gure herrien erabateko askatasuna lortzeko bide demokratikoa ez da soilik eskaera zilegi bat, denboran gehiago luzatu ezin daitekeena baizik. Bide horretan Espainiako Erregea ez da solaskide eta bitartekari balekoa guretzat. Ez du gure herrien zilegitasuna eta ez diogu aitortzen inolako zeregin politikorik. Are gutxiago, gure nazioen aldarrikapen demokratikoen aurrean, proiektu eta balio antidemokratikoak inposatu dituenean.

Hori dela eta, lanean jarraitzeko borondate irmoa berresten dugu, demokraziaren, askatasunaren eta errepublikaren aldeko helburuak berandu baino lehen gauza daitezela.

Madril, 2023ko azaroaren 29a.